

Bizkaiko Foru Aldundiak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du. Berau arautzen duen azaroaren 10eko 3075/2016 Foru Agindua azaroaren 15ean argitaratu da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Nork har dezake parte deialdi honetan?

Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak eta lan-hitzarmen finkodunak, **bai bitarteko funtzionarioak baita aldi baterako kontratua duten langileak ere**, eskabidea egiteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

Nola egin eskabidea?

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

<http://app.aldundia.bfa/apps/danok/KJ00/euskara/>.

Eskabidea egiteko epea

Epea 2016ko azaroaren 16an hasi eta abenduaren 5ean (biak barne) bukatuko da.

Azterketa-probak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa. Azterketa idatzian irakurmena eta idazmena neurtuko dira, eta ahozko azterketan, mintzamina eta entzumena.

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gainditzea emaitza orokorra "GAI" izateko.

Emaitzak

Azterketa-proben emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira, edo intraneteko orrian ikusi ahal izango dira.

OHARRA

Azterketa idatziaren eta entzumenaren emaitza gordetzea.

Irakurmena, idazmena eta entzumena gainditzen duten azterketariak salbuetsita egongo dira gainditutako trebetasun horiei dagozkien ariketak egitetik hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.

Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira HAEEn aurre-aurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzupean diharduten langileak ere.

Hala ere, azterketari horiek probetarako izena eman beharko dute hurren-hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.